

BAKARRIZKETA

Azpeiti'ko "NEKAZARI ELKARTEAK"eraturako txapelketan,
lenengo sariya irabazi zuan 1949'go Lotazilla'ren 21 an
Tomás Deun jaietan.

"Aukeraren maukera,
azkenian... okerra".

Iruditegiak gela-nagusia aurkeztatzen du. Batetik bestera bertako bertako etxeoandrea dabil. Berrogeienbat urte ta ondo jantzitakoa, Oneta dio:

—Ene! Auxen da atarramentua ta buru austia! Ez da gure etxian giro oraingo aldiyan. Neskame berriya bear da, ezin iñun arkifu alako... egokirik. Egokirik...! Izan egin bear! Bai al dago ba! Ara! Tajuzko bat azaltzen danerako, amaika itxuragabeko ikusi bear dituzu. Ia txantxetan galdetu onelako bati.

—Zuk... zertan dakizu?

Azkar asko erantzungo dizu:

—Nik... danian...

—Ara, lanian ez dakit jakingo duten... baña... apaizten... arrentantxe dira mutillak. Danak beren "permanente" ta guzti. Euriya ba'da, "plexiglazko" zira oyetakua. Aizia ba'dabil... burukua. Bear bada bere amari etzioten utziko jator, jator, buruko ta guzti ibilizen da... lotsatu egingo ziran... eta orain berak... besteak okozpean lotutako burukua daramakitela... ta... "baita nik ere". Entzungo zuten bein edo bein esaera zar au "borostian gorosti ta Donosti'an Donosti" ta an ziatzik beren bitzta osoan Parix'en bizi baldin ba-

lira bezelaxe, Eskuetako azkazalak, gorrituta; gutxiena uste dezuan, baita oñetakuak ere. Orrelako parregarrikeririk! Ezpain, betondo, "topolino" eta gañentzeukuak utzi ditzadan alde batera, nere onetik ateratzen naute-ta.

Lan askotxo sortzen zaigu etxean da... bear ba... neskamea. Senarra sendagillea izaki ta, atea irikitzea dala... aurrak dirala... ta abar, badago zer egiña.

Astian bi edo iru neska azaltzen zaizkigu ta... bata baño bestia areagoa. "Bomba atomikak" buru austia ematen duala... gendia izututa daukala... neskame aukeran jarriko nituzke...

Gero... etxeoakin... nork burutu! Otordura biltzen diran bakoitzian, zirika.

(Batek) —Oraindik ez aldegu aukeratu?

(Bestiak) —Ez da aukeratuko ere. Atzo etorri zan ille-arro ura etzan ba oso itxura gabia baña (kiñu egiñaz).

(Irugarrenak) —Oraindik ez da jayo, gure etxeoandrea aseko duanik.

Azkenerako asarre-azten didate ta erantzuten diet.

—Jayo... ez da jayoko ere... oraingo itxuraz. Gure ama zana gauak —oraingo neskame jendia ikusiko baldin balt.— berriro il egingo litzake.

Ala ere, noizian bein, banen baneko batzuek badira, Ezkondu mintzanetik orain arte izan deguna, bat, Amabost urte bete dizkigu Pia'k etxian. A...MA...BOST... Alajaña! Ura zan mirabea, ura! Nere erritarra bera, Berez bear... Villabona'koa! Jayoterrira, nere ama ikustera jua nintzan batian, begiya bota nion, da, baita asmatu ere. Gazte gaztea etorri zitzaigun. Eskuetan zekarren euritakoa bera baño ere, melarragoa, baña bai nexka zintzo ta yayua. Oitziak emán zizkion lanak ezik. "Txori bakoitzari, eder bere kabiya"... Baña, maitekiro maitekiro artu genuen, alabatza bezela, berari "garo usayak" aldegin etzion... eta danok pake ederrean bizi izan giñan. Gure aurrak uraxe izan zuten ama bigarrena. Orain moja jua zaigu ta... arreizkero dabilzkigu itilluak!

Nik danak berdiñak ziralakuan, artu det lenengo azaldu zitzaiguna ta Jangoiko maitia! Zer zan ura! Lotsagabia, alperra, lagia... (eskuakin arrapatzeko imintziyua egiñaz). Etxia zearo ustu etziganian... pozik. Ez giñan asarre bialdu genuenian!

Erri txikietakoa apaizak jakiten dutela neskata zintzoen berri ta... "Erdoizta'ra" juaten danari, arren baño arren, bat azkar biali zeigula, esan genion eta egun gutxi barru, emen datorkigu beste neskame berriya. Gure Praiska Antoni!... Tuntun xamarra zirudin baña... onenian itxuraz kontrakua izango zala ta... egin degu tra-

tua. Gajua! Beñere baserritik atera gabia. Arentzat danak ziran arri-garri. Itxasua ikusi zuanian, ura bildurra! Radiyua entzun zuanian zer esanik ez... eta urrutizkiñez deitzen zuten bakoitzean, gure etxian izaten ziran itxilluak. Artu itzegiteko tresna eskuetan, belar-ondoan jarri bear zuana abuan jarri ta noizko adierazi ezer... Orraatik ere, noizbaitian erakutsi diogu erabiltzen, eta itzegiten ari zan batian, dana asarretuta onela dio:

—Neregatik jardun diteke txintxarriya. Nik ez det geyago urrutizkiñik eskuetan artuko.

—Zer gertatzen da ba Praxka-Antoni?

—Zereko zea... Illea artzeko asmoa bateonbateg. “Vive alli la “dotorre”? Esan dit. Baita nik azkar asko ixildu-erazi ere. Zer uste ote du. Ala esan diot. “Zer dotorre ta dotore ondo gero”. Emen Gaztelumendi sendagillea bizi da, ta kras! eten diot eta kito.

—Baña emakumia, ez al dakizu ba sendagilleari, batzuek “Doctor” deitzen ditela?

—Ez, ez nekien. Meikua esaten zayola bai, baña “dotorre” ez. Ori, ez izena izango da. Dana dala, ez det nik berriz tresna ori eskuetan artuko, ez da berariz ere, ta ori esanaz an jua zan lasai asko gure Praxka-Antoni sukalderonz.

—Ari da gure neskata pixkanaka pixkanaka zerbait ikasten. Biotz onaren jabe da ta orixe da aski. Ala ere noizean bein ateraldi izugarriyak baditu.

Erañeun bazkaldarrak genituen eta esan nion: Aizazu. Bixigua maira ekarri aurretik, fuentean jartzen dezunean, belar-ondo ta abuan, perrejil prexkua jarri bear diozu.

Bazebillen gure neskata aruntz eta onuntz jana ekartzen eta biguari txanda etorri zitzaionean, or dator gure Praxka-Antoni bere abuan eta belarrietan perrejil mordoxkak zituala.

Maikoak ura ala ikusi zutenean, asten dira algaraz, asarretzen da gure neska, artzen du pardela... ta ura bazijuala bere jayotetxera, etzala Donosti arentzat egin eta abar. Orraatik ere danon artean gelditu-azi genuen eta ala dio:

—Ez naiz ni geyago maira azalduko. Ez du iñor nere bizkar parerrik egingo. Arki bezate jana maira nork eraman.

Onetxek ederki adarra jo digu, eta bere bostetik ez du iñork aterako. Gauzak poliki ikasten ari zan garayan, dana ondatu gaitu. Orren ederki eramaten zuan maira baso esnia, beatz aundiya barrura sartu gabe, etorri berriyan egiten zuan bezela. Orain etzan gelditzen... txonta zirudilla ao-zabalik... eta ala ere ori jan-gela eraman-azteko iri paria bearko da.

Auxen da lana! Bigarren neskame bear gera, lenguari laguntzeko.

Job donea, patxara aundiko gizona izan omen zan! Galduko zitzayon oraingo neskameakin bizi izan bear baldin balu. Nork burutu! Ez dira txarrak bat bere onetik atera-azteko alajaña!

Oraintxen asper eginda nago. Gogaituta naukate. Baserrietatik datozenakin, gaitzerdi, baña erri aundi usaya duten oyekin, nork burutu... Astian egun bat, aske bear dutela... Urtean amabost eguneko oporketak bear dituztela... ta gañera berari ondo deritzaie-nean... Zortzi egunetik bein pelukerira juten uzteko... Noiz-nai, agin-ateratzalliarengana... Ara! Rotxill'en diruak ez dira berriz aski, oyen soldata osatzeko. Antxiñan, etxe oneko alaba baten dotia omen zan "Eunduko bat eta mandua". Orain... neskamea mantentzeko ez dezu naikoa. Ez beintzat gaur goizean gure etxera azaldu zaigun onentzat. Ez orixe! Baña neuk ere beltza bota diot.

Etxera sartu orduko, ia egun onik emateko astirik gabe, ekiten dio:

—Emengo etxekoandrearekin itzegin nai nuke.

—Ba, aurrean daukazu. Neroni naiz.

Eta lotsagabe lotsagabe, burutik oñetara begiratuaz, itzetik ortzera ala dio:

—Emen etxekoandreak ala nagusiyak agintzen du?

(Onetxek atera dizkigu eltzetik babak. Beste orrenbeste oraindik ez degu entzun).

—Emen... nagusiya da nagusi ta etxekoandrea etxekoandre, baña neskamearekikoak... nik agintzen ditut. (Zer uste ote du onek!). Aizu, jang maniatzen bai al dakizu?

—Kuziñan bai al dakizu... kuziñan bai al dakizu... Etxekoandre danen leloa... ta zertarako ta... bi xerra punta prejitzeko. Bai, bai, gaurko otorduak egiteko ez daukagu bildurrik, jana ekarri ezkerro ugari. Etxe onetan ez da aurrik izango noski?

—Aurrak... bai... ta zoragarriyak gañera.

—Ara! eta zenbat?

—Bost.

—Bost...! Orra bertan Fraisoro... Amaika aldiz Herodes gogortu aziko dute! Errazionamentukua ala bestelako ogiya jaten da? Otorduetan ardua ere izango degu noski... Akeita ala malte erabiltzen dute? Ni beti kafe ong artzen oitua nago! A! gure amak egin oi zuan kafia! Baña ez baldin badaukazute, berdin berdin zayo arrautza paria... egunekoak izan ezkerro, etzayo ajolik... Eta oyek orrela dirala... Zer ordutan jeikitzen dira etxe onetan? Noiz izaten da gosariya?

—Zortzi ta erdietan.

—Goitzxo... Garai orretarako azalduko ez banintz, nere zai egon gabe, goşaldu...

Ondo jayuak geundeke orrelako neskame batekin...! Aren galdetu bearra! Nere erriko Bikariyuak, txarteletakuan baño ere galdera geyago, alajaña...! Ari zan ixildu gabe: bateko bere lo-gela ikusi bear zuela, besteko neskame-laguna nolakua ote zan... eta bat batean ala dio:

—Bertan geldituko naizela deritzot, Ez dirudi etxe “aldrebesa” Ikusi egingo det beintzat egun batzuetan...

IXIL une bat arrapatu nionean, diot: Nik ere galderatxo bat egin nai nizuke bada.

—Bai, bai. Nai duen guziya. Galdetu beza.

—Ara ba, bat bakarra... Bioliña jotzen bai al dakizu?

—Bi...o...li...ña... jo... tzen... ez... ez...

—Bada, bioliña jotzen ez dakin neskamerik ez degu ba biar...

—Zer... ba... (ia negarrez) Baña bioliña jotzen... Zertarako...?

—Orraba... zu ainbeste izutu zaitun aur pilla ura dana... negarrez astian... ixildu azitzeko... Eta jakin zazu bein betiko: “Gutxi itzein, nai ez bada utsegin”.

* * *

Emen aurrean zauzkatedan etxeoandre maiteok...! Gaur edo biyar neskame herri bear bazerate, gure Jangoikoa'k, Pia edo Praxka-Antoni bezelakotxia eratuko al dizuete ba... ta nere etxerako ere, zuen artean egoki-egoki bat arkituko baldin bazenidate, pozik asko artuko nuke...!

